

Oiongo Udala

Hiri-antolamenduko plan orokorraren 11. barruko aldaketa. Esposizio publikoa

Oyón-Oiongo Udalak Oyón-Oiongo hiri-antolamenduko plan orokorraren 11. barruko aldaketa (egiturazkoa) onetsi du hasiera batean. Antolamendu xehatuko eremua: oinarrizko azpiegituren eta hondakin solidoak (H.4), ez-arriskutsuak eta geldoak ezabatzeko azpiegituren eremua lurzoru urbanizaezinean, kategoria definitu gabea. Sustatzailea: Ecoreinares SL.

Hasierako onespenak automatikoki eteten ditu lursailen partzelaziorako, eraikuntzarako eta eraispenetarako lizentziak, barruko aldaketaren eremuan. Lizentziak gehienez ere 2 (bi) urtez etengo dira, eta barruko aldaketa hori behin betiko onartzen denean iraungiko dira.

Jendaurrean jarri da aldaketa osatzen duen dokumentazioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio-batzarrei jakinarazten zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten. Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin zaie.

Jendaurrean jartzea: epea 45 (berrogeita bost) egunekoa izango da iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Administrazio-espeditentea jendaurrean egongo da Oyón-Oiongo Udalaren bulegoetan. Espeditentearen dokumentazio teknikoa esteka honetan dago eskuragarri: ayuntamientodeoyon.com/images/anuncios/oficiales/2024/03/043PGOU_MODE_AI_20230315_DiligyDFA.zip.

Jendaurrean jartzeko aldian, beren burua ukitutzat dutenek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Aldaketaren azalpen-saio publikorako deialdia egin da. Bilera hori 2024ko apirilaren 5ean egingo da, Bazterra aretoan (Sortzez plaza), 11:00etan. Bo240313F

Oyon-Oion, 2024ko martxoaren 13.
Alkatea: José Manuel Villanueva Gutiérrez.